

Prensa oharra

Nota de prensa



Auzoetarako sarrerak eta irteerak

Hirira sartzeko trafikoa itxi ondoren, hiriko auzoetako trafikoaren sarrera eta irteera honako hau izango da:

- Ondarreta edo Igeldotik irten nahi duenak Zumalakarregi etorbidetik eta Tolosa hiribidetik egin beharko du

- Ibaetatik irten nahi duenak Ibaetako plazarantz jo beharko du, eta bertatik nahi duen norabidera joateko aukera izango du, Tolosa hiribidetik, Añorgarako norabidean, Lugaritzetik Amarrantz, edo Zarautz kaletik, Antiguarantz

- Berio edo Arriola pasealekura sartu nahi duenak Amerika plaza – Tolosa hiribidea – Ibaeta plaza – Bernardo Estornes – Lautximinieta plaza – Berio pasealekua hartu beharko du.

- Hirira Tolosa hiribidetik sartzen denak Zarautzik edo Izostegiko bidetik zirkulatu beharko du.

- Antiguako biztanleek: Zumalakarregi hiribideko edo Tolosa hiribideko eskuineko erreia erabili ahal izango dute.

- Kontxako pasealekurako sarbidea itxiko da bi noranzkoetan, eta, beraz, erdialderako noranzkoan, GUZTIZ, desbideratuko da Zumalakarregi – Satrustegiko biribilgunetik Mikeletesera – Pio Barojara

- Igeldo – Ondarreta aldera joan nahi duten autobus eta egoiliar akreditatuek Matiako luzapenetik sartu eta Antiguako tunelaren aurreko biran desbideratu ahal izango dira.

- Sagueseko egoiliarak sartu ahal izango dira Nafarroa – Rodil – Alexandria – Zectoria – Nafarroa - J.M. Barandiaran kaleetatik.

- Portura edo Kanpandegi kalearen ondoko bideetara sartzeko, Kolon - Santa Katalina - Argentinako Errepublika – Salamanca - Soraluze pasealekua – Abuztuaren 31 – Mayor - Ijentea

- Erdialdera sartzeko, San Martzial eta Boulevard arteko eremuan bizi direnak Gernikako arbola – Fueros - Etxaidetik sartuko dira.

- Erdialdera sartzeko, Urbieta, Zubieta eta San Martin inguruko egoiliarak Easo kaletik sartuko dira.

- Saguesetik, Pasealeku Berritik, Portutik edo zirkuituaren barruko beste puntu batzuetatik irten nahi duenak egin ahal izango du, antolakuntzaren edo trafiko-agenteen jarraibideei jarraituz